

BEZEROEKIKO

HARREMANAK

NOLA ERAKARRIKO DITUGU GUREBEZERO BERRIAK, ETA NOLA MANTENDU ETA HAZIARAZIKO DITUGU BEZERO HORIEK?

Bezeroak, gure helburua izango dira, beraz, harremana oso estua izango da.	
PERTSONALA	Bezeroek izango duten aukera bat gurekin harremanetan jartzeko arreta pertsonalizatua izango da. Hau da, bezeroek haien egoeraren arabera laguntza izango dute eta gurekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko diegu beraien arazoa konpontzeko. Esaterako, gida pertsonalizatua eginez, aholku pertsonalizatuak...
AUTOMATIZATUA	Chat-aren bidez galdera ohiko bat galdetuz gero, automatikoki erantzuna jasoko duzu baina gurekin hitz egin gabe, automatikoki gure programazioak erantzungo du (guk aurretik erantzun ditugun galderak izanda, noski).

Zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez egingo dugu, bezeroek euren arazoak konpontzeko denda fisiko batera joateko, eta bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua izango dute eta gurekin zuzenean komunikatzeko aukera baita ere.



Gure zerbitzua erakargarria izateko hainbat modutan egingo dugu:

- Egitura **sinplea** izango du
- **Argazki eta bideo erakargarriak** jarriko ditugu
- **Adin guztietarako** izango da
- **Dohainik** izango da aplikazioan ibiltzea ("premium" atala izan ezik)
- Aplikazioa **ezaguna** izango denez, jendeari erakargarria irudituko zaio

Gure bezeroak leialak izango dira, ez dagoelako inolako aplikaziorik guk eskaintzen dugun zerbitzua eskaintzen duenetik, hare gutxiago dohain.

NOLA BIHURTU BEZEROAK LEHALAK?

Gure bezeroak leialak bihurtuko ditugu, hori lortzeko bide bat publizitatea izango da. Sare sozialak erabiltzeaz gain, hainbat modu desberdin erabiliko ditugu.

Hainbat lekuetan kartelak eta hitzaldiak emango ditugu, hala nola, zaharren egoitzan, ikastoletan, institutuetan... Kartel erakargarriak izango dira eta hobeto ulertzeko hitzaldi interaktiboak eta dinamikoak antolatuko ditugu.

Gainera gure slogana eta logoa erakargarriak dira eta jendeari deigarri gertatuko zaie.

LOGOA:



SLOGAN-A: “HELPAPP KNOWLEDGE UP”